

Herri Txikien Akademia

Herri Txikiak indartzeko elkarlan,
aholkularitza eta sareze proiektua



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

Aurkibidea

Eusko Ikaskuntza eta lurralde orekarekiko kezka


Aurrekariak

Zer da Herri Txikien Akademia?

- **Heburuak**
- **Publikoa**
- **Ikusgarritasuna**
- **Gazteen begirada**
- **Genero ikuspegia**
- **Gaiak**

Herri Txikien Akademia. Arabako esperientzia pilotua

Harremanetarako pertsonak




Eusko Ikaskuntza eta lurralde orekarekiko kezka

Eusko Ikaskuntza 1918an sortu zen Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Diputazioen ekimenez. Sorreratik, beraz, Euskal Herriko lurralde anitzen arteko bateratasuna eta bitartekaritzarako lana esleitu zaio eta, egun, bizirik mantentzen duen rola da.

Eusko Ikaskuntzak ezagutza aztertu, ikertu eta sustatzen duen erakundea da, eta zubi-lana egiten du erakunde publikoen eta herritarren artean, Euskal Herriko gizartearen erronkei eta beharrei proposamenak egiteko. Ikuspegi orokorra eta epe luzekoa izanik, Euskal Herriko lurralde osoan negoziatzeko eta jarduteko gaitasuna du. Hortaz, hasierako izaera horrek oinarri sendoa ematen dio lurraldearen errealitate desberdinen arteko kohesioan sakontzeko eta oreka lortzeko, beti ere, Euskal Herri jasangarriago baten mesedetan.

Eusko Ikaskuntzak, lurraldeez lurralde, bertako agenteekin elkarlanean, dauden problematika nagusiak aztertu, irtenbide posibleak landu eta politika publikoetan eragitea du helburu. Gizartetik gizartera itzultzeko asmoz, jakitun izanik landa eremu anitz husten ari direla, 2016tik herri txikien biziberritzea bultzatzeko diagnosi lanetan aritu da baita ekimenak eta alternatibak garatzen ere.



Aurrekariak

Lurralde Oreka Eusko Ikaskuntzaren lan ildo bat da 2016 urtetik hona. Urte horretan, Zerainen "Etorkizuneko herri txikiak" kongresua antolatu baitzen. Ondoren, Lurralde Oreka programa abiatu zuen.

Programa honen helburu nagusia euskal lurraldeetan landa eremuaren eta herri txikien egoera ezagutu eta horien biziberritzea sustatzeko aukerak modu kolaboratiboan identifikatzea eta proposamenak lantzea da.

EGITASMOAK

XXI. mendeko Gipuzkoako eraikuntzan auzolana iraganeko kontua ala etorkizuneko giltza? Tolosaldean saiakera" proiektua (2021-2022)

Tolomendi Landa Garapen Elkartek, Eusko Ikaskuntzak eta Mondragon Unibertsitateak elkarrekin garatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz programaren barruan. Tolosaldean auzolanaren esanahia eta egiteko erak eguneratu eta sendotzeko xedez, eta horren inguruan parte hartze dinamika bat bideratzea eskualdeko eragileekin.


Ekimen sozio ekonomikoak landa eremuan. Katalogoa eta Topaketak (2021)

Arabako landa eremuaren eta herri txikien biziberritzeari begira interesgarriak diren egitasmo sozio-ekonomikoak bildu zituen Katalogo batean. Esperientzia inspiratzaileak eta eredugarriak, landa eremuan berrikuntza bultzatzen dutenak, eta baita ere, esperientzia biziak izanagatik.

Halaber, bi topaketa burutu ziren, bat Añanan eta bestea Maeztun, Katalogoan jasotako proiektuen sustatzaileak ezagutzeko eta konektatzeko.

Arabako landa eremuaren kontakizuna eta estilo liburua (2020-2021)

Landa eremuaren inguruko praktika diskurtsiboak eta errelatoak biltzea eta komunitate txikietan bizitzearen aldeko diskurtsuak identifikatzea izan du helburu. "Arabako herrietan bizitzearen aldeko ahotsak" txostenean batetik, kontzeptualizazio bat landu da eta Europako joerak aztertu dira eta, bestetik, landa-ingurune biziari buruzko komunikazio positibo eta eraginkorrerako oinarriak ezartzeko "estilo-liburu" osatu da, Arabako ahots esanguratsuak bilduta.



2021eko azaroaren 28an ikerlana gizarteratzeko Landatarasun berri XXI. Mendean. Praktikak eta errelatoak” jardunaldia burutu zen.

Nolako ekonomia herri txikietan? (2020)

Eusko Ikaskuntza eta Asturiasko Printzerriko Gobernuaren erronka demografikoko ordezkariaren arteko lankidetzarako elkarlana sustatu zen eragileen arteko aliantzak lotzeko.

Eusko Ikaskuntza Nafarroako Parlamentuan (2020)

Eusko Ikaskuntzak Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak antolatutako Despopulazioari buruzko jardunaldietan hitzaldi bat eman zuen.

Herri txiki adimentsuak Gipuzkoan (2019)

Egitasmo honen helburua herri txikien ekonomia suspertzeko aukera berriak identifikatzea izan da.

Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua (2018)

Mendeurreneko Kongresuan argi jaso geratu zen erakundearen lehentasunetako bat izaten jarraituko duela garapen sozio-ekonomiko orekatu eta iraunkorra lortzea lurraldeen artean, eta hala jasotzen du Euskal Herriaren etorkizunari begira plazaratutako lan-ildo nagusien artean Eusko Ikaskuntzaren Liburu Zuriak.

Arabako Lurralde Orekarantz Jardunaldiak (2017)

Arabako Foru Aldundiak lagunduta, Añanako Gatz Haranan, lurraldeko egoera sozioekonomikoa azteru zen, eta etorkizuneko garapenerako proposamenak landu ziren.

"Etorkizuneko Herri Txikiak" Nazioarteko Kongresua (2016)

Zerainen izan zen Nazioarteko Kongresuan hasi zen Eusko Ikaskuntzaren lanketa Lurralde Oreka lan lerroan.


Zer da Herri Txikien Akademia?

Herri txikiak aldatzen ari den mundu honetan eragile ahulenetarikoak dira gunee urbano handien aurrean. Gainera, izaera anitzekoak dira eta tokian tokiko erabaki eta estrategiak behar dituzte, baina aldi berean amankomuneko problematika ugari ere badituzte, eta egungo testuinguruan badira zeharkako elementuak denei eragiten diotenak, esaterako, digitalizazioa edo aldaketa klimatikoa. Etorkizunari neurria hartzeko bidean, beraz, herri txikiek badute paradigma propio bat garatu beharra, sarean egin beharrekoa ezinbestez.

Herri Txikien Akademia udalerritxikiek bere geroa jorrazteko abian jartzen dituzten egitasmoen inguruan esperientziak trukatu eta egitasmo berriei forma ematen laguntzeko gune partekatu moduan ulertzen dugu. Gogoeta eta ezagutza transferentziarekin batera, interes komuneko udalerririk elkarrekin egitasmo berriak lantzen jartzeko gune bat, besteek baliatutako tresnak ezagutu eta eskuratzeko espazio bat.

Beste era batera esanda, herri txikien kezka eta beharrak asetzea helburu hartuta, soluzio komunak garatu eta topatzea. Azken buru udalerritxosuntsuagoak, iraunkorragoak eta komunalagoak izan daitezten.

Beraz, aholkularitza eta trukerako metodologiak garatzea, sarete eraginkorra lortzea eta horren bitartez euren indarguneak identifikatu eta garatzeko aukera ematea.



Helburuak

- Landa eremuaz eta herri txikien etorkizunaz kezka partekatzen duten eragileak saretzea
- Ezagutzaren transmisio eta transferentziarako gune bat sortzea
- Landa eremuaren eta herri txikien garapenerako egitasmo eta esperientziak trukatzeko, baita proposamen berriak lantzea ere

Publikoa

- Landa eremuan bizi diren herritar, ekintzaileak eta aktibistak
- Herri txikietako udal, elkarte eta gizarte mugimenduak.
- Herri txikiei begira lan egiten duten elkarte eta mugimenduak, esaterako, landa garapen elkarteak, Arabako kuadrillak eta abar
- Gaian interesa duten teknikari eta akademikoak

Lurraldeen ikusgarritasuna

Egitasmo honek Euskal Herri osoa hartzen du. Garrantzitsua izango da lurralde bakoitzaren ikuspegiak eta problematikak jasotzea eta gaien trataeran hori aintzat hartzea.

Gazteen ikuspegia

Gazteen perspektibak eta beharrak barneratzea ere ezinbestekoa ikusten dugu. Hauen izaera eta beharrak anitzak dira, eta ikuspegi desberdinak dituzte arazoen eta beharren aurrean.

Genero ikuspegia

Landa eremuan gizon eta emakumeen arteko arrakalak, errentari eta lan aukerei dagokionez, esaterako, batz bestekoen gainetik daude. Arrakala horien gaineko analisi eta hausnarketa egitea ezinbestekoa da etorkizun demografikoa bermatzeko. Proiektu honetan genero perspektiba txertatuko da egitasmoaren fase guztietan, emakumeen presentzia eta ahotsa bermatzeko da eta haien arazoetan eta beharretan sakonduko da.

Gaiak

Euskal Herriko udalerrietan egingo diren saioetan, gaien hautaketa modu kolaboratiboan egingo da. Edonola ere, orain arte Eusko Ikaskuntzak burutu dituen egitasmoetan ondokoak agertu dira nabarmenki:

- Digitalizazioa herri txikietan
- Gazteen eta emakumeen errotzea
- Biztanle berriei harrera. Nolako elkarbizitza landu.
- Enplegua eta lurraldearekin uztartutako jarduera ekonomiko traktoreen sustapena
- Etxebizitza landa eremuan eta egitasmoak finkatzeko espazioak
- Belaunaldi arteko dinamikak eta bizitza komunitarioa

Herri Txikien Akademia.

Arabako esperientzia pilotua

Arabako edizio pilotu honen baitan, Arabako Foru Aldundiak eta Vital Fundazioak lagunduta, jorratu diren gaietan parte hartze anitza sustatu da. Batetik, herritarrak eta landa eremuko ekintzaileak protagonista izatea nahi izan dugu; bestetik, landuko diren gaietan lanean diharduten erakundeek hartu dute parte; eta bukatzeko, erabaki ahalmena duten administrazio eta botere publikoetako ordezkariak parte hartzea sustatu dugu. Arabako landa eremuaren sustapen ekonomikoa eta biziberritzeari begira soluzioak modu kolaboratiboan planteatzeko dinamikak burutu dira. Finean, Arabako herri txikiei etorkizuneko ereduak eskaintzeko elkarlanean egin nahi izan da lan.

Hiru ardatzen inguruan egin dugu lan. Ardatz hauek lehentasunezko arazoak dira despopulazio arriskuari aurre egiteko eta herrien biziberritzerako. Eusko Ikaskuntzaren jardunaldietan azaleratu izan dira eta problematika honen inguruan lanean diharduten agenteek behin eta berriz aipatzen dituzte.

Kuartango
Irailak 13

Emplegua eta ekintzaitza landa ingurunean

Oinarrizko baldintza da landa eremuak bere garapen ekonomikoa izatea eta gaur egungo trantsizioekin bat egitea (ekologikoa, digitala, demografikoa). Despopulazioari aurre egiteko ezinbesteko baldintza da landa eremuan enpleguak sortzea, eta bereziki garrantzitsua emakumeek lan duinak izatea, izan ere, landa eremuan maskulinizazio tasa altuak dira, emakumeak –bizi baldintza kaskarragoen ondorioz– hirira bizitzera joateko erabakia hartzen dutelako. Egoera horri aurre egiteko, arreta berezia jarri dugu emakumeentzat enplegu duinak garatu ditzaketen egitasmoetan.



ONDORIO NAGUSIAK

Landa eremuko ekintzaitza bitarteko bat da herri txikietan bizibidea aurrera atera eta bizitza kalitatea lortzeko. Proiektuak martxan jarri dituzten ekintzaileek ez dute eremu hori aukeratu beraien ideiak garatzeko ingurune aproposena izategatik, baizik eta komunitate horretan bizitzerearen aldeko apustua egin ondoren, hori bideragarri egin nahi izan dutelako baizik.

Erakunde publikoen aldetik sareak, oinarrizko azpiegiturak, espazioak... eskualde askotan asebeteta daude. Aitortzen da politika ugari inplementatzen direla. Udal mailan, **estrategia amankomuna faltako litzateke**, epe luzeko prespektiba batekin jarduteko. Nolanahi ere, laguntzak laguntza, ekimen bati etorkizuna bultzatzailearen grinak ematen dio, ez administrazioaren laguntzak

Dibertsifikazioa nagusi da. Lehen sektorea eta turismotik haratago, bestelako zerbitzuak eta produktuak eskaintzen dituzten proiektuak nagusitzen dira, merkatu-hobietara oso bideratuta daudenak.

Zalduondo
Irailak 20

Belaunaldi arteko dinamikak eta bizitza komunitarioa

Atal honetan herri biziak garatzeko estrategiak planteatu dira. Ez ditugu nahi lo-lekuak diren herriak, elkar zaintzen duten herriak nahi ditugu, belaunaldien arteko harremanak dituztenak, kultura bizia eta tradizioen transmisioa egiten dutenak.

Ardatz honetan ere, praktika onak bildu dira: auzolana, zaintza sareak, ekimen kulturalak eta ondare inmateriala zaintzeko praktika onak bildu dira.



ONDORIO NAGUSIAK

Errelato elkarbanatu bat behar da erakargarria egiteko landa ingurunea. **Komunitatea da** herri txiki batek bertako zein kanpoko bati ematen dion **elementurik erakargarrienetakoa**.

Elkarguneak dira gakoa, izan fisikoak zein jai eta ospakizunen bueltakoak. Horietan herritar bakoitzak bere papera dauka eta sozializazio kateek transmisioari jarraitzea ahalduz dute.

Erantzunkidetasunez jokatzeko duen gizarte bat bultzatu behar da, azpimarra auzoarengan norberak dituen arduretan jarrita. Horrek berezko zubiak eraikitzen ditu komunitatea sendotu dadin.

Herri oso txikietan komunitate bizitza sortzeko saretzea lortzea egiturazko arazoa da, **gutxieneko biztanle kopururik ez dagoelako**. Gainera, Arabako landa-inguruneak oso eremu maskulinizatua izaten jarraitzen du, bai irudimen kolektiboan, bai lan-eremu formalean. Gaur egungo egitura-baldintzek emakume gutxi izatea eragiten dute.

Urturi
Irailak 27

Etxebizitza landa eremuan eta egitasmoak finkatzeko espazioak

Gabezia ugari daude landa ingurunera biztanle berriak erakartzeko baita aktibitate ekonomikoak ezartzeko ere. Askotan etxebizitzak berritzeko eta obrak egiteko arauak oso murriztaileak dira, eta ez dute eskaintzen landa eremuak behar lukeen malgutasuna.

Honetaz gain, herritarren mentalitateak ditugu. Batetik, gerta daiteke biztanle berriak dituzten espektatibak ez betetzea. Eta bestetik, gerta daiteke landa eremuko etxe hutsak erabiltzeko zailtasunak egotea, haien jabeek ez dituztelako alokatu, saldu edo beste formularik aztertu nahi.



ONDORIO NAGUSIAK

Etxebizitza lortzeko **itxaronaldia luzeegia da**. Izan eraikina berritzeko zein berri bat eraikitzeko, tramite burokratikoek eta prozesu luzeek, etxebizitza hori behar duten gaztea hirian alternatiba bat topatzera behartzen dute.

Etxebizitzaren jabe familiako kide asko izatea oso ohiko da, herentzian jasotakoa gehienetan. Etxebizitza horietan pertenezia sentimentua dago eta ez dira ez saltzen jartzen, ez alokatzen. Kasu horietan **segregazio araudia arintzea** ezinbetsekoa da etxe batean bizitza bat baino gehiago ateratzea posible izan dadin.

Eraikinen berregokitzapean jarri behar da fokua. Herrigunearen kanpoan eraikitzeak azpiegituretan gastu handia dakar, erdigunea ustearekin batera.

Urbanismo arauak hirietan pentsatuta daude eginda. Herri txikiek ahalegin amankomuna egin behar dute aldaketa bateratuak eskatzeko eraikuntza araudian. Berdina gertatzen da ondare modura aitortuta dauden eraikinekin. Zurruntasunek oztopatu egiten dute aukera errealak sortzea.

Herrigunetako etxe zaharrak **ez dituzte kanpotarren espektatibak betetzen** eta nahi horietara egokitzeak kostu handia du. Horrez gain, zaila da familia loturarik gabeko herri batean inbertsio ekonomiko handia egitea.

Harremanetarako pertsonak

Ondorengo pertsonak Herri Txikien Akademiaren lanketan jardun diren eta egun darabilten pertsonak dira.

Jarraian zehazten dira bakoitzaren rolak:



Joseba Bergaretxe Zipitria

Eusko Ikaskuntzaren Lurralde Oreka proiektuaren arduraduna.



Ion Muñoa Errasti

Eusko Ikaskuntzaren Lurralde Oreka talde eragilearen kidea. Gizarte ikerketetan murgilduta dago eta herri txikiekin lotutako proiektu desberdinak garatu ditu.




Isabel Elizalde Arretxea

Eusko Ikaskuntzaren Lurralde Oreka talde eragilearen kidea. Nafarroko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko Kontseilari-ohia izandakoa.

Elkarrizketak lotzeko edo informazio gehigarria jasotzeko:

komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
618.18.49.49 (Leire Gaceo)



Herri Txikien Akademia

Herri Txikiak indartzeko elkarlan,
aholkularitza eta saretze proiektua

